

EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN FINANTZA LAGUNTZA JASO DUTEN AFA-REN JARDUERAK

5. ARDATZA: IKERKETAN, ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN GIZA POTENTZIALA INDARTZEA.

Neurria: Ikerketa, zientzia eta teknologia arloetan giza kapitalari buruz ikertzea eta ezagutzak ekoizpen sektorera transferitzea babestea.

1. Ekintza. Ekonomisten Euskal Elkargoaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen beka

Azalpena:

Praktikak egiteko beka dira, onuradunak ekonomia sustapenari, enpresen munduari, Europar Batasunarekiko harremanei eta informazioaren teknologia berriei buruzko gaietan espezializatu daitezen. Hiru beka mota daude:

- Ekonomia espezializazioko beka: Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatuentzako beka dira. Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Zuzendaritzan (ekonomia sustatzen laguntzeko programak, enplegua eta prestakuntza sustatzeko ekintzetan parte hartzea eta eskualdeko garapena) eta Europako Gaietarako Zuzendaritzan egiten dituzte praktikak.
- Ekonomisten Euskal Elkargoko kideek enpresetan praktikak egiteko beka: lizentziatu berriei 6 hilabetez egin ahal izan dituzte praktikak Arabako enpresa batean. Enpresok aukeratzeko lehentasuna honakoa izan da: bekadunak beka bukatzean enpresa horretako plantillan sartzeko aukera izatea.
- Informatika espezializazioko beka: Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campuseko ikasgela telematikoa eta gainerako informatika zentroetan laguntzeko beka dira, informatika gaietan adituak izango diren pertsonak trebatzeko.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Arabako Foru Aldundia
Europako Gaietarako Zuzendaritza
Posta 18, 3.a - 5. dptu. 01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: +34 945181826
Faxa: +34 945181951

2. ekintza. Mondragon Eskolaren beka

Azalpena:

Goier beken programa da. Arrasateko Eskola Politeknikoan Ingeniaritza Teknikoko ikasketak amaitu dituzten ikasleei ematen zaizkien beka dira. Atzerrian ikasketak egiteko dira, helburua gazte horien lanbide prestakuntza hobetzen eta haiek laneratzen laguntzea baita.

3. ekintza. Kultura ikerketarako beka

Azalpena:

Kulturarekin eta arte adierazpenarekin loturiko gaietan espezializatzeko eta hobetzeko bekak dira. Helburua da arlo horietan ikerketa lanak egiten eta proiektu berritzaileak gauzatzen laguntzea.

4. ekintza. Espezializatzeko ikastaroak

Azalpena:

Biztanleria aktiborentzat oro har antolatutako espezializatzeko prestakuntza ekintzak, besteak beste, sustatzeko laguntzen programa da. Ekintzok hurrengo baldintzetakoren bat bete behar dute:

- Unibertsitateko gradu ondoko titulu ofiziala ematea.
- Unibertsitate tituluen defizita betetzea.
- Gradu ondoko titulua duten pertsonentzako eta enpresetan erabakiak hartzeko erantzukizun zuzena duten karguetako pertsonentzako diziplina anitzeko heziketa izatea.
- Hasierako heziketa ikastetxeetako hezitzaileak hezteko eta arautu gabeko heziketa behar bezala aurrera eramateko prestatzeko izatea.

Hurrengo erakundeek parte har dezakete programa honetan:

- Hasierako prestakuntzako ikastetxeek, fakultateek eta unibertsitate eskolek.
- Irabazi asmorik gabeko elkarteek edota fundazioek.
- Lanbide elkargoek.
- Toki erakundeek.
- Irabazi asmorik gabeko bestelako erakundeek.